



GOMENDIOAK GLAUKOMAREN KIRURGIA EGIN ONDORAKO

EBAKUNTZA EGINDAKO BEGIAN: Alde batera uztea aurreko tratamendua. TOBRADEX®

APLIKATZEA (dexametasona + tobramizina)

Operazio-osteko tratamendurako agindu dizuten kolirioa da. Garbitu eskuak jarri aurretik. Okertu burua atzera, jaitsi beheko betazala eta bota TANTA bat, begia ukitu gabe.

1. Lehenengo astean, tanta bat lau aldiz egunean, lo-orduak errespetatuta.
2. Bigarren astean, tanta bat hiru aldiz egunean, lo-orduak errespetatuta.
3. Hirugarren eta laugarren astean, tanta bat bi aldiz egunean (goizean eta gauean).
4. Bosgarren eta seigarren astean, tanta bat egunean behin (goizean).

EBAKUNTZARIK IZAN EZ DUEN BEGIAN: Jarraitu lehenengo tratamendu berarekin, tratamendurik baldin bazenuen.

BI ASTEZ:

- Ez egin mugimendu zakarrik buruarekin.
- Etzatean, ez jarri operatutako aldearen gainean; etzan beste aldearen gainean, edo egin lo ahoz gora.
- Ez egin ahalegin fisikorik, ez altxa zamarik. Lehenengo egunetan, komeni da zuntzetan aberatsak diren elikagaiak hartzea, sabel-hustean ahaleginik ez egiteko.
- Ez ukitu eta ez igurtzi begia.
- Ez makurtu burua (makurtu egiten gara galtzerdiak janztean, zapatak jartzean, lurretik zerbait hartzean, ohea egitean...).

LEHEN HILABETEAN:

- Ez gidatu ibilgailurik.
- Saiatu animaliarik ez ukitzen eta landako lanik ez egiten.
- Ibili kerik eta hautsik gabeko giroetan.
- Ez bainatu igerilekuan eta itsasoan.
- Ez makillatu begiak.
- Baldin eta honako sintoma hauetakoren bat nabaritzen baduzu, 8etatik 15:00etara arteko ordutegian Oftalmologiako kontsultako harrerara joan beharko zara, eta Santiagoko larrialdi orokorretara, berriz, ordutegi horretatik kanpo:
 - Min handia sumatzen duzu, kirurgiaren ondoko 24-48 orduetan ez bezala.
 - Ikusmena bat-batean gutxitu zaizu.
 - Jariakin ugariak edo horixkak.

GOMENDIO OROKORRAK:

- Irakur dezakezu, edo telebista ikusi, nekatu gabe.
- Erabil ditzakezu zure betaurrekoak, bai urrunekoak bai hurbilekoak. Operatutako begiaren kristalak traba egiten badizu, alda dezakezu graduaziorik gabeko beste batekin.
- Erabil ditzakezu eguzkitakoak, beharrezkoa iruditzen bazaizu.
- Eutsi lehenengo dieta eta medikazio berari.
- Ohikoa da hondarra eta urradura duzulako sentipena izatea lehenengo asteetan.

Noiz eta nork egina: 2017ko urria

IO-OFTALMOLOGIA-07

Informazio gehiago nahi izanez gero, lasai galdetu arreta ematen dizuten profesionali.